

2014ko UHOLDEAK
307/2005 Errege Dekretua
(laguntzak eskatzeko azken eguna: 2014/08/04)

Jabetza horizontaleko Jabeen Elkarteendako diru-laguntzak

XEDEA (Jabetza horizontaleko Jabeen Elkarte bateko erabilera orokorreko elementu komunetan izandako kalteengatik, aipatu kalteen ehuneko 50i dagokion zenbatekoa emanen da, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak egindako balorazio teknikoaren arabera, eta gehienez ere **8.000€**)

1.- Jabetza horizontaleko Jabeen Elkarte bateko erabilera orokorreko elementu komunetan izandako kalteak.

ONURADUNAK

Erabilera orokorreko elementu komunetan kalteak izan dituzten jabetza horizontaleko Jabeen Elkarteak, baldin eta kalteek higiezinaren segurtasuna eta funtzionaltasuna ukitu badituzte, eta larrialdiko edo hondamendi-izaerako egoerak eragindakoak badira.

Ezinbesteko betebeharra izanen da auzokideen elkarteak **aseguru-polizia kontratatua izatea** eta poliza hori indarrean egotea gertaera eragileak gertatu ziren unean, eta kaltea gertatu izana aparteko arriskuen aseguruan edota aseguru-polizaren ohiko estalduran sartuta ez dagoen arrisku batengatik.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

(Jatorrizkoak edo kopia konpultsatuak)

1.-Eskabide-eredua

2.- Jabetza horizontaleko Jabeen Elkartearen aseguru-polizaren fotokopia konpultsatua eta indarreko primaren ordainagiria.

3.- Jabeen Elkartearen IFZaren fotokopia konpultsatua eta Elkarteko presidentearen edo Idazkari-Administratzailearen ziurtagiria edota izendapen-aktaren kopiaren bitartez.

Oharra: Eskaera Gobernuaren Ordezkaritzan (Iruñean) edota Baztango Udalean erregistratu daiteke.

Eskaera erregistratu eta 6 hilabete igarotzen badira erantzunik gabe, eskaera ukatu dutela ulertu beharko da.

